

“Ikusezinen mundukoak” ziren armiarmak Iratirentzat. Etxe inguruan zeuden, kalean, hormetan... baina gizakiak ez zituen ikusi ere egiten. Inguruan ditugun milaka zomorro txikien modura.

Iratik lupan jarrita ikusi zuen armiarma. Armiarma puska!!!, pentsatu zuen luparen handitasunean. Hanka iletsuak zituen hark. Armiarma guztiek bezala, zortzi hanka. Beti zortzi. Eta animalien liburuan begiratu zuen ziurtatzeko. Hala zen. Araknidoak deitzen omen diete...

Ondoren etorri ziren leihoko loreen artean aurkituriko inurri txikiak. Eta sekula ikusi gabeko zomorroak. Etxeko zirrikitu ezkutuenetan zeudenak. Eta euliak!! Sukaldeko fruta artean azalduko bat. Txikia bera, baina luparen erdian ederki ikusten zena. Hego txiki eta biziakin. Nahiko lan izan zuen Iratik hura ikusteko!!! Liburuak, alabaina, euliaren begiei buruz ere hitz egiten zuen. Ehunka begi txikiz osaturikoak omen ziren! Nola ba!! Ehunka begi, begi bakarrean?

Iratik, ordea, leihotik begira jarraitzen zuen bada ez bada ere. Baina liburuak ere laguntzen zion. Sekretu asko kontatzen zituen, eta horietako batzuk etxean ez, baina bai berak herrian bertan ikusitakoak. Barraskiloak azaltzen ziren, esaterako. Parkean hartzen zituenak bezalakoak. “Erradula” omen zuten ahoan. Etxean galdetu zuen, baina ez zekiten zer zen hori... Eta liburuan irakurri zuen: hortzez osaturiko mihia da!!! Janaria xehatzeko erabiltzen dutena!!

Luparekin txoratuta, Iratik gogoratu zuen tresna bat oraindik probatu gabea zuela... prismatikoak!!!



Ausartu zure marrazkia sortzera!

"Ikusezinen mundukoak" ziren armiarmak Iratirentzat. Etxe inguruan zeuden, kalean, hormetan... baina gizakiak ez zituen ikusi ere egiten. Inguruan ditugun milaka zomorro txikien modura.

Iratik lupan jarrita ikusi zuen armiarma. Armiarma puska!!!, pentsatu zuen luparen handitasunean. Hanka iletsuak zituen hark. Armiarma guztiek bezala, zortzi hanka. Beti zortzi. Eta animalien liburuan begiratu zuen ziurtatzeko. Hala zen. Araknidoak deitzen omen diete...

Ondoren etorri ziren leihoko loreen artean aurkituriko inurri txikiak. Eta sekula ikusi gabeko zomorroak. Etxeko zirrikitu ezkutuenetan zeudenak. Eta euliak!! Sukaldeko fruta artean azalduko bat. Txikia bera, baina luparen erdian ederki ikusten zena. Hego txiki eta biziekin. Nahiko lan izan zuen Iratik hura ikusteko!!! Liburuak, alabaina, euliaren begiei buruz ere hitz egiten zuen. Ehunka begi txikiz osaturikoak omen ziren! Nola ba!! Ehunka begi, begi bakarrean?

Iratik, ordea, leihotik begira jarraitzen zuen bada ez bada ere. Baina liburuak ere laguntzen zion. Sekretu asko kontatzen zituen, eta horietako batzuk etxean ez, baina bai berak herrian bertan ikusitakoak. Barraskiloak azaltzen ziren, esaterako. Parkean hartzen zituenak bezalakoak. "Erradula" omen zuten ahoan. Etxean galdetu zuen, baina ez zekiten zer zen hori... Eta liburuan irakurri zuen: hortzez osaturiko mihia da!!! Janaria xehatzeko erabiltzen dutena!!

Luparekin txoratuta, Iratik gogoratu zuen tresna bat oraindik probatu gabea zuela... prismatikoak!!!

